

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak Lan Eskaintza Publikoaren 358 plazatatik 99 deituko ditu uda aurretik

*Suhiltzaileen 10 plaza dira, emaginen 7, erizaintzako laguntzaileen 69 eta erradiodiagnostikoko teknikarien beste 13*

Miércoles, 25 de marzo de 2015

Nafarroako Gobernuak Lan Eskaintza Publikoaren (LEP) 358 plazatatik 99 deituko ditu uda aurretik; haietatik 89 osasun-arloari dagozkio eta 10 suhiltzaileen lanpostuak dira.

Foru Gobernuak 2015eko LEPen 269 plaza onartu ditu gaurko bilkuran, Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean sindikatuen aurrean aurkeztu ostean. Eskaintza horri 2011n geratutako 2009ko LEPari dagozkion beste 89 plaza huts gehitu behar zaizkio, orain berriz ere aktibatu dena.

Deituko diren 358 plaza horietatik, 209 Osasunari dagozkio, 134 Hezkuntzari, 10 Suhiltzaileen Partzuergoari eta beste 5 adimen urritasuna duten pertsonentzat gordetzen dira. 358 enplegu horiez gain, Nafarroak 30 plaza gehiago izango ditu Justiziako Administrazioaren langileen arloan, eta bere garaian Estatuak deituko ditu.

Suhiltzaileen 10 plaza izango dira eskaintzen lehenak, eta haien deialdia Nafarroako Aldizkari ofizialean argitaratuko da apirilaren amaieran. Gainera, uda aurretik Osasuneko 89 lanpostu deitzea aurreikusten da (7 emagin, erizaintzako 69 laguntzaile eta erradiagnostikoan espezialistak diren 13 teknikari), jadanik aipatutako 2009ko eskaintzari dagozkionak, eta 2011n geratu zena.

Gainerako plazak aurtengo bigarren seihilekoan izapidetzen hasiko dira. Hezkuntzan, irakasleak beren lanpostuetan 2016-2017 ikasturtean lanean hasiko direla aurreikusten da.

Mailen arabera, 180 plaza A maila dagozkio: barrutiko espezialista fakultatiboa/albokoa, Hezkuntzako 14 ikuskatzaile, Lehen Mailako Arretako 20 mediku, Lehen Mailako Arretako 7 pediatra, Bigarren Hezkuntzako 20 irakasle, 1 psikologo kliniko, 1 psikiatra, ASIS-FEA Zerbitziburuko 19, ASIS-FEA Atalburuko 67 plaza eta Unitate Klinikoko buruko 3. B mailako 163 plaza daude: Osasun Mentaleko erizain espezialistako 6, erizaineko 50, irakasleko 100, gizarte-langileko 7. Eta C mailakoak, suhiltzaileen 10



Osasun-arloan 209 plaza deituko dira.

plazak dira.

### **Osasun eta Hezkuntzako plazen banaketa**

**Osasunean** hutsik dauden lanpostuak honako era honetan banatuko dira:

- Lehen Mailako Arreta: Lehen Mailako Arretako medikurako 20 plaza daude hutsik; Lehen Mailako Arretako pediatrian, 7; erizain-lanpostuan, 18 eta gizarte-langilekoan, 7.

- Nafarroako Ospitalegunea: Laguntza Zerbitzuko buruaren lanpostuan 19 plaza daude hutsik; Laguntza Zerbitzuko buruan, 67; Laguntza Unitateko buruan, 3; Kirurgia Orokor eta Digestio Aparatuaren albokoan, 2; Erradiagnostikoko albokoan, 2; Kirurgia Ortopediko eta Traumatologiaren albokoan, 1; Anestesia eta Bizkortzearen albokoan, 3; Dermatologia M-Q eta Benereorologiaren albokoan, 1; Obstetrizia eta Ginekologiaren albokoan, 1 eta erizainen 10 plaza huts.

-Lizarrako Osasun Saila: Erradiagnostikoaren albokoan, plaza bat dago hutsik; Obstetrizia eta Ginekologiaren albokoan, 1 eta erizainen 5 lanpostu daude hutsik.

- Tuterako Osasun Saila: Anatomia Patologikoaren albokoan, plaza bat dago hutsik; Anestesia eta Bizkortzearen albokoan, 2; Kirurgia Orokor eta Digestio Aparatuaren albokoan, 1; Dermatologia M-Q eta Benereorologiaren albokoan, 1; Digestio Aparatuaren albokoan, 1; Kardiologiaren albokoan, 2; Erradiagnostikoko albokoan, 2; Medikuntza Fisiko eta Errehabiltazioaren albokoan, 1; Kirurgia Ortopediko eta Traumatologiaren albokoan, 1; Barne Medikuntzaren albokoan, 1; Obstetrizia eta Ginekologiaren albokoan, 1 eta erizainen 9 lanpostu daude hutsik.

- Osasun Mentala: Psikologo Klinikoko plaza bat hutsik dago; Psikiatriako albokoaren 1; eta Osasun Mentalean espezialista den erizainen 6 lanpostu daude hutsik.

**Hezkuntzan**, 134 plazatatik, 100 maisuentzat izango dira, 20 Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat, eta gainerako 14ak Departamentuko Ikuskapen arlorako.